

**IPURTERRE**  
Ipuin Lehiaketa



**idazleendako  
SARIAK**

# LH ETA DBHKO IPUIN LEHIAKETA XVIII. IPURTERRE 2013

...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean, Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XVIII. edizioa antolatu du. LH eta DBHko ikasleek hartu dute parte eta, guztira, 1.000 ipuindik gora jaso dira. Hurrengo orrialdeetan lehiaketan sarituak izan diren ipuinak irakurtzeko aukera izango duzue.

## Etorkizuneko idazle gazteak

Aurtengo Ipurterrek ere egin du berea. Azkeneko hilabeteetan burubelarri lanean jardun dugu denok: ikasleak, irakasleen laguntzarekin, ipuinak idazten; Txikitto!-ko erredakzio taldea guztia antolatzen, eta epaimahaia osatu duzuen guztiok lanak irakurri eta irabazleak erabakitzen.

Guztiei eskerrak eman behar dizkizuet aurtengo ere egin eta eskaini duzuen lana eta laguntasunarengatik.

Horrez gainera, opari-sortak egiteko liburuak bidaltzen dizkiguzuen argitaletxeei ere gure eskerrik beroenak: Erein, Ibaizabal, Elkarlanean, Pamiela, Gaumin eta Igela, eta nola ez, aurtengo ere opariak osatzen lagundu digun Yraolagoitia Eibarko liburudendari ere bai.

Laster oporrak izango dituzue, eta merezitako atsedena hartuko duzue.

Datorren urtean ere, aurtengo bezain beste lan egingo duzuela ziur nago.

Zorionak irabazleei eta eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!

Datorren urtera arte!



**ARGITARATZAILEA:** " ...eta kitto!" Euskara Elkartea, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776. **ERREDAKZIO KONTSEILUA:** Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte.

**ERREDAKZIOA ETA MAKETAZIOA:** Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. **ARGAZKIAK:** ...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. **AZALEKO ARGAZKIA:** Ekhi Belar. **COPYRIGHT-A:** Txikitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS-1111/96



Eibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria



LH 1-2



**Joanes  
Lazarobaster**

## Inauteriak

**B**azein behin herrixka txiki bat. Herrixka horretan inauteriak ziren. Denak kaleetan zehar mozorrotuta zebiltzan, bat izan ezik. Pertsona hori ez zegoen mozorroturik sorgin gaizto batek gizotso bihurtu zuelako.

Inauteri egunean jakin zuen herrixka ondoko mendian azti bat

bizi zela. Orduan pentsatu zuen aztiarengana joatea, sorginkeria kentzera. Aztiak esan zion belar magiko batzuk emango zizkiola, eta belar horiek buruan igurtzi behar zituela.

Orduan belarrak igurtzi zituen buruan eta pozik bizi izan ordutik aurrera.





## Tximua, txoria eta arraina

**U**dako egun batean, tximua, txoria eta arraina aintzira batera joateko gelditu ziren.

Tximua, txoropito hutsa zen, eta gezurti samarra. Txoria eta arraina, berriz, azkarrak eta arrantzale bikainak.

Aintziran zeudela tximinoa kejaka hasi zen, ez zekiela ez arrantzatzen ez igerian. Eta pentsakor geratu zen hori nola lortu.

Txoria eta arraina uretan zeudela, tximuak norbait urrutitik zetorrela ikusi zuen.

- Kontuz! Argi ibili! Zerbait dabil uretan!



Txoriak eta arrainak ez zioten sinestu oso-oso gezurtia zelako, baina egia zen!!!

Tximuak eurek begiratzeko esan zue-nean, krokodilo batek ahoa zabaldu eta jan egin zituen.

Tximua oso triste etxerantz joaten hasi zen, baina ideia bat etorri zitzaion burura: tontokeriak egitea.

Txorakeriak egiten hasi zen eta krokodiloa barrez lehertzen hasi zen, eta kanpora bota zituen txoria eta arraina.

Txoriak eta arrainak eskerrak eman zizkioten tximuari. Eta esan zioten igerian eta arrantzan egiten jakin ez arren, tontokeriak egiten artista hutsa zela. Hurrengo egunean tximuari igerian eta arrantzan erakutsi zioten.



LH 5-6



**Irati  
Alvarez**

## Izar bat elur artean

**T**xikia nintzela izar batekin egiten nuen amets. Izarra polita, eskuzabala eta umore onekoa zen. Berarekin jolasten nuen harrapaketan, ezkutaketan, fooballean... nire lagun handia egin zen. Gurasoe-kin haserretzerakoan, triste sentitzean... begiak itxi eta han egoten zen nire zain. Izarrak, Izar zuen izena eta den-dena kontatzen nion gauero, baita nire sekretutxoak ere.

Ikastolan Urko izena zuen mutil batekin jolasten nuen, bera ere nire lagun handia zen, norbaitekin haserretzen nintzenean berak ni defendatzen ninduen, eta bera norbaitekin haserretzean nik defendatzen nuen. Berak, goizetan, futbolea jokatzen zuen gainerako mutilekin eta nik neskekin egoteko aprobetxatzen nuen. Arratsaldero, ikastolatik irtendakoan, fabrika abandonatu batera joaten ginen, inork toki hura non zegoen ez ze-

kien tokira; han etxeko lanak, eskulanak... egiten genituen.

Behin etxera heldutakoan, irakurri, pijama jarri eta ohea egin ondoren afaltzera mahaira joan nintzenean arraro ikusi nituen gurasoak, baina ez nion kasu handirik egin. Hortik aurrera, beti egoten ziren arraro. Urkori eta Izarri esan nien baina gauza bera erantzuten zidaten:

- Zure imajinazioa izango da.

Nik, berriz, ez nuen uste nire imajinazioa izango zenik eta horregatik egun batean galdera bat egin nien gurasoei:

- Ama, aita, zergatik zaudete hain arraro?

Baina ez zidaten ezer erantzun. Ni pent-sakor jarri nintzen, zergatik izango ote zen?

Arrazoa hilabete batzuk geroago jakin nuen, fabrikatik etxera etorri nintzenean,

ama eta aita sofan eserita zeuden eta eurekin esertzeko esan zidaten. Ama izan zen lehen hitza esan zuen:

- Irune, etorri momento batean, gauza bat esan behar dizugu.

Orduan jakin nuen zerbait gertatzen zela, amak beste tonu batean esan zuelako, eta sofan jarri nintzenean aitak segitu zuen hitz egiten:

- Ez da erraza izango inorentzat baina zure ama eta ni banandu egingo gara...

Azkeneko hitza esan zuenean nire gelara joan nintzen, gertatu zitzaidan gauzarik txarrena izan zen.


Nire gelako atea giltzez itxi nuen, ohean etzan nintzen eta begiak itxi nituen. Han Izar ikusi nuen eta zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan, baina dena kontatu nionean, bera ni lasaitzen saiatu zenean, nik zakar erantzun nion oso triste nengoelako. Begiak ireki nituenean zakarregi erantzun niola pentsatu nuen eta begiak itxi nituenean ez nuen Izar ikusi, joan egin zen. Asko saiatu arren ez nuen Izar ikusten, betirako galdu nuen.

Hurrengo egunean Urkori dena kontatu nion baina ez zen harritu, eta esan zidan:

- Norbaitekin haserretzean, ez duzu hain zakar erantzun behar, bere sentimenduak mindu dituzulako eta gainera badakizu lagundu nahi zaituela.

Horretan arrazoi osoa zeukan eta ez zegoen atzera bueltarik.

Urte batzuk geroago, 12 urte nituenean, negua zela, Urkorekin fabrikara joan nintzen etxeko lanak egitera. Dena elurrez zegoen eta jolasten hasi ginen. Bat-batean distira egiten zuen gauza bat ikusi nuen eta begiratzeraz joan nintzenean Izar ikusi nuen, nire Izar.



Zumaia, 2009ko martxoak 3

## Lagun maitea,

Krisian gaudela diote, baina Euskara krisian ote dago?

Joan zen astean amets bat izan nuen eta kontatzekoa dela uste dut:

Goizean goiz esnatu nintzen eta amak deitzean ezin izan nuen hitzik esan. Arazoren bat nuen. Ohetik jaiki, arropa erantzi, kalerako prestatu eta sukalderantz abiatu nintzen. Trago bat ur edan nuen eta berriz hitz egiten saiatu nintzen.

Argi zegoen, mutu geratu nintzen. Ama larritzen hasia zen. Ezin genuen ezer egin.

Kalera irten nintzen, ahotsa joan bezala bueltatuko zelakoan. Besteekin komunikatu ahal izateko beste bide batzuk bilatu behar izan nituen. Triste nengoen. Nola jarraituko nuen nire bizitza nire hizkuntza erabili gabe?

Ibilalditxo bat egin nuen eta jendea erderaz hitz egiten entzun nuenean, min izugarria eragin zidan bihotzean. Zergatik Euskal Herrian bizi direnak ez dira euskaraz bizitzen, euskaraz hazten edota euskaraz hezten? Nire kezka adierazi nahi nien baina hizkuntzarik ez nuenez, ezin izan nien nire kezka azaldu.

Estu eta larri sentitu nintzen oso egoera berezia izan zelako, ez nekien zer egin. Nola azaldu nire sentipenak, nire kezkak, nola...?

Momentu horretan amak esnatu ninduen:

- Maddi! Zatoz! Jaikitzeke ordua da!
- Banoa, ama -erantzun nion.

Ahotsa nuela ohartu nintzenean poztasun ikaragarria sartu zitzaidan gorputzean. Dena amates gaiztoa izan zen. Hura lasaitua!

Eskolarako bidean nire ametsaren zati bat hor zegoen: dena erdara hutsa zen. Baina orain gai nintzen sentitzen nuena adierazteko. Banuen nire hizkuntza eta argi eta garbi esan nien aberatsak ginela bizitzan hainbat hizkuntzen ezagupenak izateagatik, baita haiek erabiltzeko gai ginelako ere.

Beraz, badakizu lagun, krisian gaude, bai, baina behintzat aberatsak gara, hizkuntzak aberastasuna ematen digulako. Ez gara horretaz ohartzen hizkuntza bat guztiz galdu arte, nire amets gaiztoan gertatu zen bezala. Ez dezagun hizkuntza bat ere galdu. Behintzat, horretan, ez dadila krisialdirik egon.

Hizkuntzarik ez duenak zorionik ez du, aprobetxa ezazu!

DBH 1-2



**Idoia  
Lahidalga**

## Lagun maitea,

Krisian gaudela diote, baina euskara krisian ote dago?

Euskara, Euskal Herriko hizkuntza da, eta nik krisian dagoela esango nuke, Euskal Herrian bertan ere gutxitua dagoelako eta gehiago erabiltzen direlako gaztelania eta frantsesa. Baina ez da ahaztu behar ez dela hizkuntza jokoan dagoena, baizik eta hiztunek ematen dioten balioa.

Euskaldunok, Europako biztanleria zaharrena eta Pirinioetako kulturaren eta Paleolitikoko ehiztarien ondorengoak gara.

Badago jendea euskararen aldekoa izan arren, ez digula euskara erabiltzen uzten eta beraiek ere ez dutela erabiltzen, eta seguruenik ezta erabiliko ere. Gainera, denok dakigu euskara Europako hizkuntza zaharrenetarikoa bat dela eta askoren ama-hizkuntza denez, mintzatzen jarraitu behar dugula, gure semeek eta beren hurrengoek ezagutzea nahi badugu.

Euskara ikastea konplikatu xamarra dela? Bai, hizkuntza guztiak bezala, eta zer? Guztiok dakigu edozein hizkuntzak bere aberastasuna, jatorria, historia eta pasarteak dituela, beraz, zergatik ez zaindu, maitatu eta eutsi, komunikatzeko beste baliabide bat bada?

Denok dakigu, duela urte batzuk, Francoren garaian, euskaraz hitz egitea debekatuta egon zela eta norbaitek araua ez bazuen betetzen, harrapatuz gero zigor bat jasotzen zuela. Baina gertakizun eta garai horri aurre egin zioten familiek, euskara oraindik gure inguruan egotea lortu dute.

Historian zehar, Euskal Herrian hainbat konkista eta gerra egon dira eta baita hainbat erlijio eta ohitura ezberdin sartu ere, baina ez dira nahikoak izan euskara aurrera ez irteten uzteko.

Euskara oso aberatsa eta biraorikan ez duen hizketa garbia da, beraz, zaindu egin behar dugu ez galtzeko.

Hau guztiarekin esan dezaket, euskaldunok euskaraz hitz egin behar dugula, eta ez galtzeko bide bakarra, dakitenek erabili eta ez dakitenek irakastea dela.

DBH 3-4



**Lorea  
Urkia**

## Magiaz beteriko sari-banak

**A**urten ere zenbat lan egin duzuen Eibarko ikasleek! Oso pozik nago, eta harro ere bai, aurtengo Ipurterre Ipuin lehiaketara lan mordoa arkeztu dituzuelako. Guztira 1000 ipuin inguru, hori da hori lan egitea. Eta jakina, lehiaketa guztietan bezalaxe, irabazleak ere baditugu. Maiatzaren 15ean jaso zituzten sariak aurtengo irabazleek, magiaz beteriko ekitaldi zoragarrian.

Goizeko 10.00etan izan zen hitzordua Unibertsitate Laboralean. Zintzo-zintzo etorri zineten ikasle guztiak, eta oso ondo portatu ere bai ekitaldi guztian. LH 1-2. mailan Joanes Lazarobasterrek irabazi du (Iturburu); LH 3-4. mailan Maddi Sarasua izan da irabazlea (Iturburu); LH 5-6. mailan Irati Alvarez (Iturburu); DBH 1-2. mailan Idoia Lahidalga

(La Salle Azitain); eta DBH 3-4. mailan Lorea Urkia (Mogel Isasi).

Bost irabazleentzat sariak prest, urteroko moduan bestelako sorpresarik ere bazuen aurreikusita ...eta kittol-k: magia ikuskizuna.

Madiber magoak ikuskizun polita eskaini zigun Unibertsitateko aretoan. Gainera, laguntzaile finen laguntasuna ere izan zuen: karta-jokoak, usoa agertu eta desagertarazi, soka magikoa... Ederto pasa zuten bost irabazleen gelakideek eta baita bertan zeuden irakasle eta gurasoek ere.

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi, zorionak irabazleei, mila esker epaimahai-kide izan zareten guztiei eta gure eskerrik beroena Erein, Elkarlanean, Ibaizabal, Pamiela, Gaumin eta Igela argitaletxeei eta Eibarko Yraolagoitia liburudendari.









## Urtebetetzeetako gonbidapenak

Zure urtebetetzea laster datorrela eta lagun eta senitartekoei gonbidapen bereziak egin nahi dizkiezula? Ba hona hemen, modu errazean, oso gonbidapen bereziak egiteko pausoak.


### ZER BEHAR DUGU?

- ✂ KARTULINA GORRIA ETA BELTZA
- ✂ MOLDERAKO POTE BATEN TAPA
- ✂ ORRI-ZULATZAILEA
- ✂ BULEGOETAN ERABILTZEN DIREN 2 OINETAKO 2 GANTXITO
- ✂ JOSTAILUZKO 2 BEGI
- ✂ ITSASGARRIA
- ✂ GONBIDAPEN-ORRIA



### Pausoak:

- 1.- Potearen tapa erabili marigoringoaren gorputzaren biribilak marrazteko. Mozorro bakoitzeko moztu gorputz bat beltza eta beste bat gorria.
- 2.- Moztu 6 biribil beltz eta beste biribil beltz bat buruarentzat, eta itsatsi begiak buruan.
- 3.- Aurrekaldeko biribil gorria erditik moztu eta itsatsi 3 biribil beltz alde bakoitzean.
- 4.- Gonbidapena itsatsi mozorroaren gorputzaren barneko aldean.
- 5.- Bi kartulina gorrietan zulatxoak egin eta pasatu bertatik gantxitoak. Hegoak irekitzerakoan gonbidapena ikusiko da.



# etxeko SUKALDARIA

## TXOKOLATEZKO ARMIARMAK

Osagai gutxi eta pazientzia asko. Horixe besterik ez duzue beharko honako errezeta gozo eta dibertigarria egiteko. Lehenengoan ez zaizuela ondo irten? Pazientzia izan eta ikusiko duzue, hurrengoak zoragarri irtengo zaizkizue.

### OSAGIAK

- ✓ Bizkotxo txikiak edo magdalenak
- ✓ 50 gr txokolate beltz estalgarria
- ✓ Txokolatezko fideoak
- ✓ Hodei zuriak
- ✓ Azukrezko perlatxoak
- ✓ Mikados pakete bat

### Pausoak:

1.- Bizkotxo edo magdalenarekin armiarmaren gorputza egingo dugu. Kolora emateko txokolate urtuarekin estaliko ditugu, eta gogortzen laga.

2.- Armiarmaren zangoak egiteko Mikados-ak edo txokolatean bustitako makiltxoak erabiliko ditugu. Nahi dugun neurrian moztu eta txokolate urtuarekin itsasi.

3.- Begiak egiteko merenge txikiak, hodei zuriak... edo nahi duzuen erabili dezakezue.

Armiarma handiagoa egitea nahi baduzue, gehitu gorputzari bonboitxo bat edo bizkotxo zati bat.





**zu margolari!**